

JASANGARRITASUN-ARRISKUEN POLITIKA BEZEROEI ESKAINITAKO INBERTSIO-ZERBITZUEN ESPARRUAN

Kutxabank hasiera-hasieratik gizartearekin konprometituta dagoen erakunde bat da, hiru euskal aurrezki-kutxen fusio baten emaitza baita. Bere ikuspegiaren baitan hartzen du gizartearekiko arduratsua izateko konpromisoa, eta horretarako, bere jarduera ekonomikoak ekonomia, gizarte eta ingurumenaren esparruetan izaten duen eragin positiboa maximizatzeko asmoa erakusten du; hori guztia negozio-eredu zuhur batean eta bezeroekin epe luzerako harreman bat ezartzen duen ereduan oinarrituta.

Bere Ingurumen Politikan jasotzen denaren arabera, Kutxabankek jarrera proaktiboa hartzen du, ingurunearen babesari, kutsaduraren prebentzioari eta ingurumenaren narriadurari dagokionez; horretarako, negozio-eragiketetan ingurumenaren alderdiak integratzen ditu eta arriskuaren kudeaketa-prozesuetan ingurumen-arriskuak kontuan hartzen ditu.

Politika honen helburua da Kutxabanken eta Cajasur-en (aurrerantzean, Erakundeak) zer modutan aplikagarria den azaltzea, eta nola ari diren ezartzen jasangarritasun arriskuak beren bezeroei eskainiriko inbertsio zerbitzuetan.

1. TESTUINGURUA

2018. urtean, Europar Batasunak **Finantza Jasangarrien Plana** aurkeztu zuen, finantzak Europako ekonomiaren berriazko beharrekiko elkartzeko helburuarekin, mundu osoaren eta gure gizartearen onerako. Plan honen oinarrian NBEko Batzar Orokorrak 2015ean zehaztu zituen Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak daude, eta Parisko Hitzarmena eta Agenda 2030 ezarri nahi ditu.

Helburu honen ildo berean, EBk 2050. urterako klimatikoki neutroa izateko helburua ezarri du. Horretarako, isurketak murrizteko prozesu bat ezarri du, zeinak ekoizpen-ereduan eraldaketa handi bat eragingo duen eta, bertan, klima-aldaketaren ondoriozko egokitzapen eta arintze-prozesu honekin lotutako arriskuak eta aukerak sortuko dira.

Finantza Jasangarrien Planak lehentasunezko hiru helburu ditu:

1. Kapital pribatuko fluxuak inbertsio jasangarrietara birbideratzea
2. Gardentasuna eta epe luzerako ikuspegia sustatzea
3. Arriskuaren kudeaketa jasangarritasuna barneratzea

Plan honek zuzenean eragiten du finantza-erakundeetan, izan ere, "finantza jasangarriak" terminoaren bulkadaren helburua zera da: finantza-jarduerak, finantza-irizpide tradizionalak kontuan izateaz gain, bere kudeaketa IGG irizpideak txertatzea.

Planak, bereziki, kapital pribatuko fluxuak inbertsio jasagarrietara birbideratzearen garrantzia azpimarratzen du, baita jasagarritasunaren ikuspegi batetik, gardentasun handiagoa ematearen garrantzia ere, inbertitzaileek hobeto informatutako erabakiak har ditzaten.

2019/2088 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, 2019ko azaroaren 27koak, finantza-zerbitzuen sektorearen jasagarritasunari buruzko informazioaren hedapenari buruzko arau bateratuak ezartzen ditu, zehazki, jasagarritasun-arriskuak txertatzeari eta jasagarritasunaren arloko gertaera kaltegarrien gardentasunari dagozkionak.

Erregelamenduak ezartzen dituen gardentasun-betebeharrek web orrian barne hartutako informazioari, kontratu aurreko informazioari eta aldizkako txostenei eragiten diete.

2. INBERTSIO-ZERBITZUEN ESKAINTZAN JASAGARRITASUN-ARRISKUAK TXERTATZEA

Jasagarritasunaren arriskua izango da ingurumen-, gizarte- edo gobernantza-gertaera edo egoera oro, zeinak jazoko balitz, inbertitzen den funtsaren balioarengan ondorio negatibo bat eragingo zukeen, eta besteak beste, jaulkitzaile-motaren, jarduera-sektorearen edo inbertsioen kokapen geografikoaren arabera izango da. Era horretan, jasagarritasun-arrisku handiagoa duten inbertsioek eusten dituen funtsaren balioan modu negatiboan eragin dezakete eta, beraz, baita aholkatutako posizioetan ere.

Erakundeek, pixkanaka, jasagarritasun-arriskuaren kudeaketa bere bezeroen inbertsio-prozesuetan barne hartzen dute, zeintzuek Zorroen Kudeaketa Diskrezionalaren eta Aholkularitza Ez Askearen zerbitzuen bitartez gauzatzen diren.

Erakundeek eskaintzen duten aholkularitza ez askearen zerbitzua Kutxabank Gestión-ek eraikitako inbertsio-funtsetan babesten da. Ildo horretan, aipatu funtsei buruz Erakundeak bezeroei egindako inbertsio-gomendioek horiek argitaratutako informaziotik abiatutako jasagarritasun-arriskuak barne hartzen dituzte.

Zorroen Kudeaketa Diskrezionalaren zerbitzuari dagokionez, Kutxabankek Eskuordetutako Kudeaketa Zorroen Inbertsio-batzordearen bitartez gauzatzen ditu bere bezeroen inbertsioak. Cajasur-i dagokionez, zerbitzu honen kudeaketa Kutxabank-i eskuordetuta dauka. Kutxabank Gestión-ek Erakundearekiko aholkulari gisa parte hartzen du, aztertutako arriskuen eta aukeren berri emanez. Batzorde horretan, zorroetan zehaztutako arrisku-profiletarako hoberenak direla uste duten inbertsio-erabakiak hartzen dira. Arriskuaren baliztapen hori egiteko, ingurumen, gizarte eta gobernu korporatiboaren (IGG) faktoreak hartzen dira kontuan. Gainera, Kutxabank Gestión-ek, aldian-aldian, faktore horien azterketari buruzko berriazko informazioa emango dio Bankuari, arriskuen identifikazioari eta balioztatutako aukerei dagokienez.

Kutxabank Gestión-ek jasagarritasun-arriskuak txertatzeko politika sendo bat dauka, honako irizpide nagusiekin:

A. Inbertsio-irizpideak:

Bere bezeroentzako epe luzerako balio jasangarria sortzeko helburuz, inbertsio-erabakiak funtsezko giza eskubide unibertsalak babestuz eta errespetatuz hartu behar dira, zuzenean ala zeharka, horiek haustea saihestuz. Hori dela eta, Gobernantza Onaren politikak, Ustelkeriaren aurkako borroka eta zerga-arloko jardunbide egokiak bultzatzeko helburua izango dute.

Kapital pribatuak IGG helburuak dituzten inbertsioetan txertatzea bultzatzeko, erakundeak jaulkipen berde, sozial edo jasangarrietan inbertitzea lehenetsiko du, betiere, bere arrisku ekonomikoaren azterketa zehaztutako parametroen barruan baldin bada, eta inbertsio-zorroari epe luzera egonkortasuna emango dion balio gehigarri bat baldin bada.

B. Jabetza arduratsuaren politika:

Kutxabank Gestión-ek, kudeatzen dituen zorroetako inbertitzaileen ordezkari gisa, politika aktibo bat gauzatuko du, politiketan eta praktiketan IGG irizpideak barneratuz, bere betebeharrak fiduziarioaren baitan, eta beti aipatu inbertitzaileen interes onena defendatuz.

Kutxabank Gestión-ek egin beharko duen politika aktiboa bi jarduketa-lerroren bitartez gauzatzen da. Lehena partaidetza "materialak" edukitzen diren sozietateetako **Akziodunek Batzar Nagusian botoa emateko duten eskubidea erabiltzea** da. Eskubide hori erabiltzeko, Kudeatzaileak, alderdi ekonomikoez gain, IGG irizpideak eta, bereziki, klima-aldaketaren egokitzapen eta arintze-estrategiekin lotutako alderdiak kontuan izan beharko ditu, 2050. urtera begira, konpainiak neutraltasun klimatiko baterantz eboluzionatzera bultzatzeko.

Bigarrena, aldiz, **konpainiekin elkarrizketa bat izatean** datza, euren jarduketa-planetan ingurumena eta gizartearekiko arduratsua den inbertsioaren politika honetan zehaztutako irizpideak txertatzearen garrantziari buruz.

C. Bazterketa-irizpidea:

IGG arloko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten inbertsioak identifikatzeko (giza eskubideei dagozkien jardunbide desagokiak, ingurumen-kalteak, ustelkeria eta zerga-gaiak), Kutxabank Gestión-ek, **lehenengo iragazki gisa, bazterketa generikoaren zerrenda bat** erabiliko du, erreferentziazko sekulako pentsio-funts handienetako batzuen bazterketa-zerrendetan oinarritua, zeintzuek besteak beste, nazioarteko hitzarmenak eta markoak errespetatzen ez dituzten enpresak baztertzen dituzten.

Gainera, Kudeatzaileak **paradisua fiskala izateagatik baztertzen diren enpresen zerrenda** hartuko du faktore mugatzaile gisa, zeinak paradisua fiskaletan errotutako jaulkitzaileak zorroetatik baztertzen dituen.

D. Balioztapen-irizpideak:

Bere balioztapen-irizpideen ikuspegi oso bat egiteko, bazterketa-iragazkiak aplikatu ondoren, Kutxabank Gestión-ek jaulkitzaileak ebaluatu beharko ditu IGG alderdi materialak kontuan hartzen dituzten neurketen bidez, eta ebaluazio hori inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuetan txertatu beharko du.

Balioztapen-irizpide horiek txertatuz, jaulkitzaile bakoitzaren azterketa oso bat sortuko da, erakunde bakoitzaren ingurumen, gizarte eta gobernantza korporatiboaren portaeraren ikuspegi orokor eta oso bat lortzeko.

Kalifikazio horiek sektorearen arabera graduatuko dira, eta "best in class" ikuspegia duen inbertsio jasangarriaren estrategia bat hartuko da, epe luzera ikuspegi hobek eskaintzen dituzten inbertsioak identifikatzeko, ingurumenaren arloko finantza-aldagaiekin eta aldaketa-klimatikoari buruzko Parisko Hitzarmeneko helburuekin gehien bat egiten dutenekin batera, eta beraz, 2050erako neutraltasun klimatikorako trantsizio hobea garatuko dutenak. Horretarako, irizpide nagusi gisa karbono-aztarnaren neurketa erabiliko da.

E. Gaiari buruzko irizpide osagarriak:

Ingurumenaren alderdiari dagokionez, inbertsioen eta Parisko Hitzarmenak adierazitako helburuen arteko adostasun-maila balioztatuko da, egokitzapen- eta arintze-estrategia egoki bat garatzeko. Era horretan, inbertsioen trantsizio-arriskua murriztuko da eta epe luzera balio handiagoa izango duen osagai bet erantsiko da.

Inbertsio-zorroaren aurreikusitako eboluzioa ezagutzeko helburuz, trantsizio klimatikoaren ikuspegitik begiratuta, Kutxabank Gestión-ek konpainien plan estrategikoen araberrako aldagai ezberdinen etorkizuneko ikuspegia aztertuko du. Horretarako, egokienak iruditzen zaizkien metodologiak aplikatuko ditu, eta bere jasangarritasun-arriskuen kudeaketa-politikan identifikatuko ditu.

Azterketa horri esker, arrisku fisikoak neurtu ahal izango ditu, geroz eta maizago eta gogorrago jotzen diren gertaera meteorologikoen edo klima-aldaketak eragindako aldaketen ondorio direnak. Trantsizio-arriskuek izan dezaketen inpaktua ere aztertuko da, neutraltasun klimatiko bateranzko bilakaeran dagoen sistema bateko alderdi aldakorrek lotuta daudenak. Arrisku horiek alderdi legalekin, arautzaileekin, politika-alderdiekin, teknologikoekin eta merkatuen aldaketekin lotutako arrisku gisa agertuko dira.

Horrez gain, Kutxabank Gestión-ek zorro espezifikoak garatuko ditu, garapen jasangarriaren helburuetan (GJH) inpaktua izango duten inbertsio zehatzekin.

3. GERTAERA KALTEGARRIAK

Erakundeek, beren diligenzia egokiaren politiketan, Kutxabank Gestión-i egindako jarraipena barne hartuko dute, jasangarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakietako gertaera kaltegarrien ondorio negatiboen azterketarena.